

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Bezeroak dira gure proiektuaren erdigune, hau da, bezerorik gabe ez dago inongo proiekturik aurrera eramaterik. Gainera, ondo pentsatu behar da nori eskaintzen diogun gure produktua; izan ere, produktu denak ez daude bezero guztientzat eginak, eta hauek zehaztea komenigarria da.

Hau esanda, merkatuen segmentazio atalean gure proiektua norentzat zuzenduta dagoen definituko dugu, hau da, gure proiektuan pentsatzean irudikatzen dugun bezeroa nolako den zehaztuko dugu. Honek ez du esan nahi beste bezero motak alde batera utziko ditugunik, bezero mota berrien aurrean pentsamendu irekia mantenduko dugu, proiektua handitzen joan dadin.

Ikastetxeetan zentratuko gara, ikastetxe euskaldunetan, gure produktua euskaraz eskainiko baitiegu ikastetxeei. Batez ere Euskal Herriko ikastetxeak bisitatuko ditugu, eta 12 eta 16 urte bitartekoei eskainiko diegu gure proiektua. Adin tarte horretan autismoari buruzko jakintza minimo bat izatea garrantzitsua dela iruditzen zaigu, gainera, gure proiektuak arrakasta badu, hainbat arazo sahietu daitezke gazteen artean.

Adin tarte hau iruditu zaigu egokiena; izan ere, adin tarte hau da gure garuna garatzen den momentua, hau da, adin tarte honetan gauza asko alde batera utzi eta gure ingurunean zentratzen hasten gara. Gainera, denbora tarte honetan gure pentsatzeko era asko eraldatzen da eta, gure ustez, beste askoren artean, autismoa bezalako gaiak lantzea oso garrantzitsua da kontzientzia maila minimo bat lor dezaten.

Ikasleen adin tarteak behatzean konturatu gara ez garela 12 urte baino gutxiago dituzten gazteetan zentratuko, hauek oraindik ez dira gai beraien inguruan gertatzen denaz ohartzeko, hau da, bere osotasunean ulertu ahal izateko. Adin horretan oraindik askok gurasoen babesa behar dute, oraindik ez dituzte gai hauek toleratzen, eta, gainera, azalpen asko eman arren, gure ustez ez dute interesik azalduko. Interesik azalduko ez dutela esaten dugunean, ez dugu esan nahi autismoa ez zaiela interesatzen, baina errealak izanda, ezagutza minimo bat ez duen ume batek, eta autismoa zer den ez dakien ume batek ez ditu



ez gure azalpenak, ez gure jolasak ulertuko. Beraz, ondorioz, ez du interesik azalduko ez hitzaldiarekiko, ezta jolasekiko ere.

Jendea guk ezer esan gabe ohartzen da autismoa existitzen delaz eta jende askok duelaz, baina, gehienetan ez dute kasurik egiten edo gaia baztertu egiten dute egongo ez balitz bezala. Beste aldetik, ez zaigu iruditzen gure proiektuaren moldakuntza 16 urte baino gehiago dituzten gazteentzako egokia. Honen arrazoi gisa, hauek



beren ideia propioak garatuta dituztela, eta horregatik, haiengana heltzea oso zaila dela da. Honetaz aparte, jokoak ere ez zaizkigu adin tarte hauetarako egokiak iruditzen, oso ulerterrazak direlako eta bete-betean asmatuko luketelako zer egin.

Ikastetxe motei behatuz, Euskal Herrian mota asko daudela argi dago. Gure proiektua ikastetxe pribatuei, publikoei eta itunpekoei eskainiko diegu, oso garrantzitsua iruditzen baizaigu hainbat ikastetxe motetara joaten diren pertsonak inguruko egoeraz kontzientziatzea.

Hizkuntzaren garrantziaz gain, EH-ko eskoletan zentratuko gara gertutasunagatik eta errazago bideratuko ditugulako ikastetxe atzerritarrak baino, bai hizkuntzagatik eta baita garraiobideagatik ere.

Esan dugunagatik, ikastetxe hauetan eta adin tarte hauetan zentratu gara gure proiektuak arrakasta izan dezan.